

BERRIAK ETA GAI LABURRAK

GURE ILLAK

JOSE INDALEZIO ZINKUNEGI ARRUTI (1886-1964)

Igaro dan Urtarrillaren bederatzigarrenean il da Zarautzen Zinkunegi sendagillea, aspalditik Euskaltzaindiko Urgazlea izan dana.

Errexildarra jaiotez, Valladoliden egin zituan ikasteak. Euskal idazle ona izan da; batez be joskera jatorra erabili dau bere idazlanetan. Balmesen "El Criterio"-a (**Irizpideak**) eta Kanpionen ipuin batzuk (**Erraondoko azkenengo atabalaria, Popatxo, Jan Pier Bidart**) itzuli zituan.

Izlarria be izan da, eta bere itzaldi batzuk **Euskal Esnalea** aldizkarian agertu ziran.

Ainbat euskal aldizkaritan idatzi dau. **Zigor** operearen libretoa saritu eutseen Bilbaon 1957'gn. urtean.

Ia amaituta itxi dau itzegi bat. Beste itzulpen eta lan labur batzuk be argitaratu barik itxi ditu.

Egin daben lanagin, leku on bat irabazi dau Zinkunegik euskalarien artean eta Euskal Literaturan. Goian bego.

N. A. G.

GILLERMO ALBIZU 1963 URTEKO BERTSO PAPEL SARIKETAREN IRABAZLE

Euskal Akademiak bertso papel sari batzuk jarriak dauzka urtero emateko Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialaren laguntasuna dala medio. Igazko urtearen barruan jarritako zenbait bertso papel aurkeztatu ziran parte artzeko eta Euskal Akademiak juradu bat izendatu zuen iritzia eman zezan: Antonio Arrue, Alfonso Irigoyen, Juan San Martin eta Aita Antonio Zavala Jesusen Konpañiakoa. Bildu dira eta 1964 otsaillaren 28-an egin duten batzarrearen ondoren au da ao batez jakinerazi nai dutena:

Lendabiziko saria Guillermo Albizu Tolosa-koari ematea erabaki dutela amalau bertso "Txarrikume bati" jarriak dituen papel bategatik. Bi milla pezeta da jaso bear duen dirua.

Bigarren, irugarren eta laugarren saria iru bertso papeli ematea, baiña irurak gradu berdiñean gelditzen dirala bata bestea baiña geiago nabarmendu gabe. Sariak berdindu egin dira eta bakoitzak milla pezeta artu bear ditu. Auek dira:

"Zurrutari jarriak" Jesus Lete "Ibai-ertz".

"Arantzazuko Amari jarriak" Manuel Matxain.

"Euskal Erriko oiturak" Sebastian Salabernia.

Bertsolariei jakinerazten zaie aurten paratutako bertso papelik onenak ere sariak izango dituztela eta animoso agertu bear gendukeala.

Sari auek 1965 ilbeltzaren 1-ean partitu ziran Anoetako frontoian Euskal-erri osoko bertsolarien azken txapelketa nagusia egin zanean.

ANTONIO BILBAO MONASTERIO 1964 LIZARDI POESIA SARIAREN IRABAZLE

1964 urterako Lizardi poesia saria emango zanaren berri zabaldu zan 1962 urtean ipiñi ziran oiñarri berdiñakin. Lanak bialtzeko epea maiatzaren 28-an bukatu zan. Euskaltzaindiak juradu bat izendatu zuen: Fernando Artola "Bordari", Gabriel Aresti, Juan Maria Lekuona, Aita Santiago Onaindia eta Agustin Zubikaray.

Agertu ziran lan guztiak irakurri ondoren 1964 uztailaren 22-an epaia eman zuten eta saria Antonio Bilbao Monasterio-gana erori zan, Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak emandako bost milla pezeta. Bere poesia lanaren titulua "Loraen zugatza" izan zan.

DOMINIQUE PEILLEN 1964 URTEKO DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIAREN IRABAZLE

1965 urtean Toribio Alzaga teatro saria ematea tokatzen da

Aurten Txomin Paillen-i eman zaio Domingo Agirre novela saria, Bizkaiko Ahorro Kaxak Euskal Akademiarekin bat egiñik sortua duena. "Gauaz ibiltzen dana" deritza saria irabazi duen obrari. Juradua osatu dutenak Gabriel Aresti, Juan San Martin eta Alfonso Irigoyen izan dira eta ago batez eman dute erabakia.

Txomin Peillen Parisen jaio eta bizi dan gazte bat da, guraso zuberotarren semea. Euskal izkuntza batua ondo menderatua du bere jatorriko izkera bes-teetatik berezietakoa izanagatik eta gaiñera kultura zabalaren jabe da.

Datorren urterako Toribio Alzaga teatro-sarira dei egiten da orainarteko oiñarri berberakin eta lanak bialtzeko epea 1965 uztailarren 20-an bukatzen da.

JOSE MARIA LERTXUNDI "ARGIÑ" AYA-KOAK 1964 XENPELAR SARIA IRABAZI DU

Euskaltzaindiak Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak lagunduta Xen-pelar poesia sariak bertsolarien klasean ari diranentzat ipiñita zeuzkan igaz. Urtearen asieran bertso papelak aurkeztatzeko epea luzatu zan.